

# Armanak Askara

edo

# Z

## Iberouko Egunaria

1898 gerren ourtheko

Jinkoa eta Herria !

Zuhurlarzuna eta lana !

Eta biži bethi Uskalduna !

Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o-o !

Parisen

L. DE SOULLE enian

Vaugirard-eko karrikan, 58an



## BEGITHARTE HORIEK:

- (2) *erran nabi da* : Estiapen hastia *edo argizagi oso*.  
(3) " Argizagi azken laorden.  
(4) " Gorapen hastia *edo argizagi berri*.  
(5) " Argizagi lehen laorden.
- 

## OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 6<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthailako* 23<sup>an</sup> ; — BAZKO, *aphirilako* 10<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 16<sup>an</sup>, 17<sup>an</sup> eta 18<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 19<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *maiatzeko* 29<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 9<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaroko* 27<sup>an</sup>.

---

## LAOR THENPORAK :


Martchoko 2 <sup>n</sup> , 4 <sup>n</sup> eta 5 <sup>n</sup> .	{	Burnilako 21 <sup>n</sup> , 23 <sup>n</sup> eta 24 <sup>n</sup> .
Arramaiatzeko 1 <sup>n</sup> , 3 <sup>n</sup> eta 4 <sup>n</sup> .		Abentuko 14 <sup>n</sup> , 16 <sup>n</sup> eta 17 <sup>n</sup> .

---


## EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhunte phartzkoa ourtharila 7<sup>an</sup>; ikhousiren da Uskal Herrian, arratseko hamar oren eta laorden etarik goiti. — Bestebat, uztaila 3<sup>n</sup>; ikhousiren da Uskal Herrian, arratseko 7 oren eta gaiherdien artian. — Beste bat orano, osoa, abentu 27<sup>an</sup>; ikhousiren da Uskal Herrian, arratseko bederatzu orenetarik aitzina : argizagia osoki gorderik dateke 11 orenen eta gaiherdi eterdiren artian.

Badirate 1898<sup>an</sup> hirour ekhi ulhunte phartzko, bena ezdutie ikhousiren Uskal Herrian.




## RENAUD D'ELLISSAGARAY



**I**ZENAK dadukan bezala, Uskal Herriko seme da Atharratzen sorthurik maiatzeko 8<sup>a</sup>n, 1871 ourthian. Parisen eskoletan egonik, han berian abokatu errezebiturik izan da. Goiz danik hanko gizoun aiphatien khantian hasizen hitzkatzen eta pheredikatzen ; eta bethi laborarien althe burhagertu da.

Parisen hanitchetan egin dutu pheredikiak, eta Frantziako gaseta guziek aiphatu tie. Gainti guziatik haren galthero ziren pherediku egiteko. Behin *Creil* den hirian bat egin zian judio aberats eta gothor elibaten kontre, haien oihan eta ihizteka-zañak bi labrari ehorik beitziren ; eta ordu danik ehozaliak tribunalala deithurik izan, ezpeitziren orano phekatu egi-



tera. Harginbelzen aitzi egin dutu pheredikiak Parisen eta Montmorency hirietan. Joan den ourthian *Lyonen* izan da bilzarren bat handirik : bazen segurrik hamar milabat gizoun. Harat galthatu zien goure herritarra eta eman zutian hirour pherediku. Geroztik izan da *Dijon*, *Versailles*, *Poitiers* eta beste hanitchto hiritan pheredikatzen bethi laborarien althe. Beljikan ere izan da pherediku emaitera eta mintzatu da *Louvain*, *Gand* eta *Bruxelles* deitzen dutien herriean.

Aorthen gerlabat handia izan da Greken eta Turken artian. Turkek hil erazi zutien hirour ehun mila khristi, eta Grekak, khristi direlakoz, orano hil etziren althe jarri. Hatsarre hatsarretik mous de Elissagaray soldado bezala joan zen Greken artiala ; bena noula atzerrik (edo estranjerik) ezpeitzien nahi, etzen bere gogoan burutu ; halere hanko gizon aiphatienek galthatu zeroien Frantziarat igortez gerlako berriak, eta ordian izkiribatu zian, hañ hedaturik eta irakourturik den *La Libre Parole* gasetan, artikulu saldobat.

Bena berheziki maite du Uskal Herria eta hebegainti, han hebenka, egin dutu berrogeibat pherediku phuru, ezpada gehiago, haboroak uskaraz : ezi uskaran frantzesian bezain trebe da. Hortarik ageri da kartieleko intresak etcheki nahi dutiala. Orai galthatu herri orotara joaiten da. Diala bi hilabete edo hirour, Eskualduna den gasetak artikulubatetan ezinago laidatu du, urhentzian zioalarik : « Jaun horren nahia litake, eskualdun laborarien argitzea. »

Azken ourthian *comte d'Hugues*, deitzen eta laborarien althe den deputatia laguntu du le *Parti national agraire* den bilkhura handiaren hountzen. Hartan sarthu dira deputatu saldobat, eta pe hoietakoa laborari aiphatu hanitch. Bost ehun gasetak laguntzen dutie. Gogoan hartu die laborarien zergen eta legarren tchipitzia burutan joan eratzia. Bilkhura hartako aitzindarietan da goure herritarra (membre du comité directeur.)



## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.



- ㉙ a.o. 8<sup>n</sup>, gaiherdi eta erditan.
- ㉚ a.l. 15<sup>n</sup>, arrastiriko 30<sup>r</sup>. eta 54<sup>m</sup>
- ㉛ a.b. 22<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>r</sup>. eta 34<sup>m</sup>.
- ㉜ l.l. 29<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>r</sup> eta 42<sup>m</sup>.

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ㉙ a.o. 6<sup>n</sup>, arratseko 60<sup>r</sup> eta 33<sup>min</sup>
- ㉚ a.l. 24<sup>n</sup>, gaiherdi, eta 44<sup>min</sup>
- ㉛ a.b. 20<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>r</sup> eta 50 min
- ㉜ l.l. 28<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>r</sup> eta 23<sup>m</sup>

1 Neskanegun.	ZIRKONZISION	1 Asteharte.	s. Iñazio.
2 <b>Igante.</b>	s. Makaire.	2 Astizken.	KHANDERALLU
3 Astelehen.	sá Jenevieve.	3 Ostegun.	s. Blasi.
4 Asteharte.	sá Fausta.	4 Ostirale.	sá Jana, Val.
5 Astizken.	sá Amelia.	5 Neskanegun.	s. Agata.
6 Ostegun.	APHARIZIO.	6 <b>Igante.</b>	<i>Selujesimo.</i>
7 Ostirale.	sá Melania.	7 Astelehen.	s. Romual.
8 Neskanegun.	s. Luzien.	8 Asteharte.	s. Johane Mat.
9 <b>Igante.</b>	s. s. Julien.	9 Astizken.	sá Apolina.
10 Astelehen.	s. Marzien.	10 Ostegun.	sá Eskolaztika.
11 Asteharte.	s. Teodoso.	11 Ostirale.	A. B. Lourdakoa.
12 Astizken.	sá Tazienna.	12 Neskanegun.	s. Tita.
13 Ostegun.	s. Leonze.	13 <b>Igante.</b>	<i>Setsajesimo.</i>
14 Ostirale.	s. Hilera.	14 Astelehen.	s. Valenti.
15 Neskanegun.	s. Phaole, erm.	15 Asteharte.	s. Faosti.
16 <b>Igante.</b>	s. Marzel.	16 Astizken.	sá Julienna.
17 Astelehen.	s. Antoni.	17 Ostegun.	s. Hiji.
18 Asteharte.	J. Phetir. Err. Jartia	18 Ostirale.	s. Flavien.
19 Astizken.	s. Kanut.	19 Neskanegun.	s. Konrad.
20 Ostegun.	s. Fabien eta Sebast.	20 <b>Igante.</b>	<i>Kinkajesimo.</i>
21 Ostirale.	sá Añes.	21 Astelchen.	s. Pepein.
22 Neskanegun.	s. Bizente.	22 Asteharte.	J. Petir. Ant. Jart.
23 <b>Igante.</b>	A. B. Ezkontz.	23 Astizken.	HAOSTE.
24 Astelehen.	s. Timote.	24 Ostegun.	J. MATHIAS, ap.
25 Asteharte.	J. Phaoler kon.	25 Ostirale.	Elhorrr. Khor.
26 Astizken.	s. Polikarpe.	26 Neskanegun.	sá Batilda.
27 Ostegun.	s. Johane Kris.	27 <b>Igante.</b>	GOROZUM IA
28 Ostirale.	s. Amadeo.	28 Astelehen.	s. Rufi.
29 Neskanegun.	s. Franz. Sal.		
30 <b>Igante.</b>	sá Martina.		
31 Astelehen.	s. Petiri Nol.		



## MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.



- ⑩ a. v. 8<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ⑪ a. l. 15<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.
- ⑫ a. b. 22<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- ⑬ l. l. 30<sup>n</sup> goizanko 7<sup>or</sup> eta 50<sup>m</sup>.

## APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⑭ a. o. 6<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 29<sup>m</sup>.
- ⑮ a. l. 13<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ⑯ a. b. 20<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 30<sup>m</sup>.
- ⑰ l. l. 29<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.



1 Asteharte.	s. LEON, <i>Baion.</i>	1 Ostirale.	<i>A. B. Dolor.</i>
2 Astiz. <i>IV Th.B.</i>	s. Zinplize.	2 Neskanegun.	s. Franzes P.
3 Ostegun.	s <sup>a</sup> Kunegonda.	3 Igante.	ERRAMU.
4 Ostir. <i>IV Th.B.</i>	J.K. Lantza eta Itz.	4 Astelehen.	s. Anbrosi.
5 Nesk. <i>IV Th.B.</i>	Lupererule.	5 Asteharte.	s. Bizente <i>Ferr.</i>
6 Igante.	<i>Gorozum.</i> 2 <sup>a</sup> .	6 Astizken.	s. Sisto.
7 Astelehen.	s. Tomas Akin.	7 Ostegun.	<i>Osteg.</i> <i>Saintu.</i>
8 Asteharte.	s. Johane J.	8 Ostirale.	<i>Ostir.</i> <i>Saintu.</i>
9 Astizken.	s <sup>a</sup> Frantzesia.	9 Neskanegun.	<i>Nesk.</i> <i>Saintu.</i>
10 Ostegun.	40 Martirak.	10 Igante.	BAZKO.
11 Ostirale.	<i>Suarlo Sia.</i>	11 Astelehen.	s. Leon hand.
12 Neskanegun.	s. Greg. haud.	12 Asteharte.	s. Jules.
13 Igante.	<i>Gorozum.</i> 3 <sup>a</sup>	13 Astizken.	s <sup>a</sup> Ermenegild.
14 Astelehen.	s <sup>a</sup> Matilda.	14 Ostegun.	s. Justeñ.
15 Asteharte.	s. Zakaria.	15 Ostirale.	s <sup>a</sup> Anaztazia.
16 Astizken.	s. Ziriaka.	16 Neskanegun	s <sup>a</sup> Grazi.
17 Ostegun.	s. Patrik.	17 Igante. 1.	s. Anizet.
18 Ostirale.	J. Gabriel, ark.	18 Astelehen.	s. Electero.
19 Neskanegun.	s. JUSEF.	19 Asteharte.	s. Leon IX.
20 Igante.	<i>Gozorum.</i> 4 <sup>a</sup>	20 Astizken.	s. Teotimo.
21 Astelehen.	s. Benedict.	21 Ostegun.	s. Anzelmo.
22 Asteharte.	s <sup>a</sup> Kiktruda.	22 Ostirale.	s. Soter eta Kaiò.
23 Astizken.	s <sup>a</sup> Pelajia.	23 Neskanegun.	s. Jorji.
24 Ostegun.	s. Agapit.	24 Igante. 2.	s. Zerazi.
25 Ostirale.	A.D.M. ANONTZ.	25 Astelehen.	J. MARK, Eb.
26 Neskanegun.	s. Braolio.	26 Asteharte.	s. Klet & Marz.
27 Igante.	PASIONIA.	27 Astizken.	s. Zerazio.
28 Astelehen.	s. Justein.	28 Ostegun.	J. Phade, K.
29 Asteharte.	s. Pastor.	29 Ostirale.	s. Petiri, m.
30 Astizken.	s. Amadeo.	30 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Katalina.
31 Ostegun.	s. Benjameñ.		



## USKAL HERRIKO LABORARIER

**H**RMANAK hounen egilek galthatu deitade erraitez hitz gutitan, zer souhetatzen du-dan laborarier jiten den ourtheko ! Ehi date haien khumitiari ihardestia : laborarier desiratzen dudana da, bere egitekoetan burutan joan ditian orai artekan beno hobeki. Bena hortako zer behar da ? deusere besterik, baizik eta gobernia doietik ari dadin ororen eretzian.

Izkiribatu dut orai beno lehen kartilla tchipibat etan<sup>1</sup>, zer heñetan diren Frantziako egitekoak : 1876 ourthian Frantziako zorra hogeita bat miliartetara helzen zen, gerlak erazi zorrak phakhaturik zirelarik ; orai, 1897 ourthian, badugu hogeita hemeretzu miliartetako zor bat. Budjeta, erran nahi beita despendioen edo joanphiden khountia, ber houla goraturik da ! 1876 koak, bi miliart eta sei ehun miliou despendientako zaduzkan ; aorthenkao hirour miliart eta erdiz goiti badoa. Hortarik ehi ikhousten da egitekoak noula hounturik izan diren. Eta ezta mundu orotan nazionerik guk bezain zor handia dianik.

Budgetak markatzen dian diharia nountik idokitzten du goberniak ? Frantziako populiak emaiten du, guk Uskal Herrian goure phartia. Frantzian bada hogeita hamazortzi miliou jente, eta haietan hogeita bost miliou laborari, Laborariak arren haboroenik, eta hetarik jiten bizigarriak oro. Laborariak dutu ogiak ereitzen, kabaliak alhatzen, ; harek du bere lanarekin,

1. Kartilla hori dohainik igorririk da galthro egiler orori ; Atharratzerat izkiriba jaon Renaud d'Elissagarayi buruz.

ountsa izertzez udan, eta hoztez negian, Frantziako hountarzuna egiten.

Eta halarik ere, harek du kargia oro sustengatzen. Haren mouzkinak goberniak ahal bezain beste beretzen dutu. Dezagun ikher zer gisaz.

Gobernuko gizounen beren erranetik, laborarien hountarzunek (etchalte eta founts,) errebenioetarik herena phakatzen die, erran nahi beita ehunaren hogeita hamahirour. Hirietako hountarzunek (etche eta founts) eztie phakatzen errebenioetarik, ehunaren hamazazpi baizik, laborarien hountarzunek phakatzen dienaren erdia. Aberats handi, hountarzunak fres gabe saltzen edo erosten ahal diren paperetan dutienek, aldiz, eztie ehunarentako laor baizik phakatzen errebenioetan gañen. Azken hoiek beno zortzietan haboro phakatzen du laborariak. Ezteia hori egiazko behargabia ?

Eta gisa oroz legarrak joiten du laboraria : bi sosen tabaka erosten duzunian, emaiten tuzun hamar zantima hoietan, bada zantimabat tabakarentako, bestebat salzaliaren, eta beste zortziak... goberniarentako. Gatz erosten duzia ber prezioarentako, goberniak beste hainbeste hatzamanen du. Kafia, sukria eta hanitchto beste gaiza, khario phakatzen tugu, goberniak phetcha handiak ezarten dutialakoz, eta ororen burian goure gain erorten dira, eta guk orok, erostunek, dutugu phakatzen.

Legiak oro jente chehiaren aitzi eginik dira : proba ahal niro noula saltzepenetan phakatzeko diren ehungerrenak tchipitzen diren nouiz ere etche edo lurrauen balia handitzen beita : bost ehun liberatako balia batetan, bada ehun eta hamabi ehunarentako fres ; mila liberako etchaltebaten, ehungerrena heltzen da hogeita sei etara, eta hamar mila liberatarik goiti ezta haboro bi ehungerren baizik fres.

Egunko egunian laborari chehenek phakatzen dutien legar guzietan igorten die errebenioen heren

phartia : zorretan balinbadira, beharko dutie bestalde intresak egin : eta baratuko denarekin beharko dira bere mañatekin (edo familiekin) bizi. Ourthiak nou-lako nahi izanik ere, houn edo gaichto, kargiak berberak baratzen, legarrak salbu : hourak bethi goiti badouatza. Aldiz hiri handietako jaon zounbaitek, etchalte eta lurrik eztienek, eta hetarik hanitch bada atze herrietarik (edo estranjeretik) jinik, *Bourse* deitzen den arakharder etchian populiaren sosak milioukaz hatzamaiten dienek, eztie deusere kasik bere errebenioetarik phakatzen.

Holaz laborariak dira berbera legarrez eta phetchaz leherturik. Zerentako arren hori ? Legiak haien kountra eginik direlakoz.

Areta eztira elhe eder entzun gabe. Hourak oro kholkao goititu batie, badukie bizi oundarraren urgaitzarre doia. Eta bozka denboretan ederragorrik entzun eta entzunen die. Bena legarrak bethi gorentzez badouatza, eta laboraria, ororen burian, noula nahika erabilten dutie oraiko gobernazalek.

Lehenago halaber zen hiri handietako langilez : bera orroa ederrik egin die, eta uduri du eztela orai legerik haien althe baizik.

Laborariak ez liroaitekia ber urhatsetik ari ? Bai segur. Hortakoz aski da laborari adichkide houn batzen haitatzia, besten berme, herri bakhotchian. Oraiko egunian eztira deusere, izan beharrik, eztut erranen oro, bera zerbaite phuru. Behar den heñian izan nahi dira.

Legarrak nahi dutie bestek bezala phakatu, besten araoian, izari doian ; eta ez orai bezala, aberatsen orde, pharte handienaren egarbez.

R. D'ELISSAGARAY.



DAIGUN BOZKAZ.— M. BARTHOU MAOLEN

?

**A**ZKEN urrietako lehen era bigerren igantetan Baiounak eta Maolek ukhen die M. Barthou ministroaren bisitabaten ouhouria. Egiaren erraiteko, bi deputaturi plazer egiteko jin da umen. Ezi ministroak eztira noula nahika ebil erazten. Egia da ere orano M. Barthou goureaizoko kartiel batetako deputatu dela eta aizo izenian jin ahal izan dela.

Bilkurabat egin die Baiouna hiri etchian jaon horren ouhouretan. Bena noula Baiounesak ezpeitira Biarnesen hanbat adichkide, hanitcheak bere beithan eroaiten zien zerentako biarnes deputatu ministroa joan zen hiri hartara. Ihour ez umen zen haren arrankura. Geroztik jakin die M. Legrand den deputatiak jin erazi ziala erakoutsi nahiz harekin bat dela, indar handibat badiala ministroaren eretzian eta hareganik, zer nahi den jardietz diroala.

Fountsian joan da ministroa Bayonara M. Legrand den hora ezpeitie han gainti tchestatzen, eta bozka hullantzen ari beita, haren kreditaren amiñibat arrimatu nahiz. Baiounes eta miarriztarrek badakikie zer egin behar ordian.

Han batzarre houn egin deie gorri eta gorhallek. Hatik garako ezkaratzian sartziareki, entzun dutie ez hounkijinezko oihia, bena bestelako, eta huchtiak tarrapatakaz. Dioie ere tomata egoitchi diela albarot egilek ministroa zen karrochala... Boucau den herriko langile saldo bat ziren han, ez araoz oraiko goberna-zalez sobera kontentik.

Eman deroien bazkarian M. Barthou mintzatu da. Usatu erranak arrapikatu derizku : « Errepublikatiar gira, nahi ere. Egin dutugun legiak oro,oro,diren ber eduki nahi tugu gobernuko etsai eta erreligionetiarrekin batere nahastekarik gabe.

« Bazeie arren goure legen, lege guzien hounki hartzia. Gu ezgira goure ozkatik ez igitzen, ez igituren, Errepublikak diraieno. Errepublika deno lege hoiek orok irain behar die. Lege hoik eta Errepublikak bat egiten die eta hourak ezin ukha bestia ukhatu gabe. »

Budgetaz ezta batere mintzatu ministroa, ez eta kargulant nonbriaren bethi gorentziaz. Bazukian hatik zer eras hoiekin ! Beste franko elhe erran du hala noula goberniak erreligionia haizu eitzi nahi diala, eta eizten ere ; errespetatendiala, eta holako beste zounbat erasi ! Eniz abusatuko ministroaren erranen gezurtatzen erreligioniaz aiphu. Aitzineko armanaketan erakoutsi dut goberniak sustengatzen diala erreligionia, urkhabiak urkhatia sustengatzen dian bezala. Badut beste rik ikhertzeko aldi hountan.

Oundoko igantian Maolen zen ministroa. Eztakit Maoleren ouhouratzera jin denez : ezi gobernuko etchian sarthu da heltu bezain sarri eta ez batere hiriko etchian, ountsala egin behar zukian bezala. Etzaitzo joan aitziniala, Baionan bezala, albarot egiliak ; bena zounbat nahi jente zen haren helzian etziren batere zentzorditurik ministrobat jiten zelakoz. Zounbaitek oihu : Biba Barthou ! haboroak ichil.

Ziberoutarrek, Baionesek bezala, bere gogoetan eroan die zerentako ministrobat Maolen. Maole ezta hiri handibat, eta « comice agricole » den bat, gaiza aphurregia ministrobaten amurra erazteko. Geroztik jakin dugu orok M. Berdoly goure deputatiak khumitaturik zela, haren sustengatzeko daigun bozkaren hullantziari. Ministroak berak aski erakoutsi deiku, hari eskeintu bazkaritik landan egin pheredikian : « Uskal Herriko errepublikatiarrak, ez bozkari berribat, ez aitzinekorik, eztuzie gudiziaturiko ; eta nourbait phekatzten balinbada zien botzen galthatzera, horduzie M. Berdoly. »

Zer orroak ezdutie gorriek enperadoregoa urhentziari « candidature officielle » deitz en zienaren kontre !

Orai aldiz houn edireiten die enperadoregoan hain gaitzi zerena.

Eta ouhouriak egin tu ministroak, daigun bozkan goure kartielian goberniaren eta harek deputatu gei haitatu dianaren althe gudukatuko direner ! Ministroa jin da bere zerbutchariaren agerian sustengatzera ; merechi zian, ezi bai erran du goberniak nahi zutian orori, houn ede gaichto : ezta batere arankuratu laborarien hounetan zirenez, ala ez. Goberniak nahi zian : arren harek ere, bai erran.

Sustengu horren beharra bazian ere, eta halarik ere eztakit burutan joanen denez oraikoan. Uxken zian bekhokia bozkatzeko bezperan, holzer lotherazteko paperbat zioana Aita Saintiak haitatu bozkaria zela ! Guti hatzamanik izan dira holako gezurraz ; halere zounbaitek bere buriak enganatzera eitzi dutie, eta majoria tchipi beitzen, ezta handi holako bidez igaranbazen.

Egunko egunian laboraria hobeki eskolaturik da bere egitekoetan, eta eztie aisa hatzamanen. Bestalde M. Berdoliren kredita tchipitzet badoua : hainbeste hitzaman du eta ez deusere etcheki ! Behin ere ahoa zabaltu dia legar gorentzen kountre ? Ez, eta aldiz be-thi bai erran.

Bere herrian berian kountselluko sarthu nahi izan denian zeragitu da ? Nekez igaran da, *azkena*, eta aski zatekian laor edo bostek eman litzen botzak beste gisaz haren kanpo egon erazteko.

Azken bozka phuntian, Maoleko pettoliat batek M. Etcheverry ganik baztertu nahiz kantounadako botzemailiak, izkiribatzen zeren bozkari harek hitzaman ziala berheziki bortietako bakaden eta oihanzañen petik lur hanichkoren elkheraztia, eta etziala deusere jardietsi, Errepublika goberniaren etsai beitzen. Eta gero aitzina emaiten zian :

« Fabore hoien eta zouin nahi beste lagungouen Errepublika-Goberniaren ganik ardiesteko, botzemail-

lek orok, behar duzie igorri deputatu Pariserat errepublikano houn eta segur bat, Goberniaren adichkidebat, *houra beita mous de Berdoly* zounek, nahiz etzian deputatu kargiak emaitendian indarra, hainbeste hounki egin beitu Maoleko arrondisamentu orotan! Eta zer lagungoua ezteiku eginen Deputatu datekianian, kalitate horrek emaiten dutian indarren medioz? » Ordian erraiten zien ere ahapetik, Uskaldun bakhoitzik etzela haboro soldado joanen, ... erran gabe M. Berdolyren medioz.

M. Berdoly burutan joan zen. Badakigu haren burkhidiak zounbat nahi ezten haboro deputatu, zerbutchu handirik egin diala ohi bezala bere herritarer. Zer egin du M. Berdolyk? Gallo hari hersatu direner! Dioienaz bereterbat bazilarik, etzian arraposturik egiten haboroetan hora behartzen zien Uskalduner.

Eta khanberan zelarik, zer egin du hounik! Bethi bai erran goberniak erazten zutian despendio izigarrier, eta legar emendioer. Hain zen mutu noun deputatu lagun hanitcheke ezpeitzien ezaguten, eta eztu behin ere ahoa ireki, behin baizik erraiteko : « Nous l'espérons bien, » (ezpeitzen segur pheredikia luche), eta hanitch usu, dioienaz, aharraosi egiteko.

Ziberouko laborariek bethi bakada phakatzen die, nahiz orai bozka hullantziari, erraiten dien aphaltzekoa dela, eta oihanak ere bere zañzalen pian dira bethi, lehen bezain tinki.

Ezagutzen die orai M. Berdoly denarentako. Zounbat nahi ministroak sustengaturik, baduke partida hounbat. Ezi haren burkhidia ezaguturik da ezkere Uskal herrian bena Frantzia guzian, Uskaldun, eta uskaraz nour nahi bezain ountsa mintzo.

Aholku zounbait orai botz emaile epheler bozka phuntian zer aldetarat utzul eztakiener. Botza behar da bethi kountzentziak erraiten dian ber eman; bena nour berak behar du bere beitha ountsa argitu, bot-

zaren behar bezala emaiteko. Ezpeita zer nahiko lanbat segur bozkatzia.

Botza gaichki emaiten bada, ezta lamatzen ahal. Horri behar da gogoa eman. Nourbaiti ogen egiten dianak, bardintzen ahal du damu egina, eta behar du. Mardallabat erran dianak, badiro hora barreraz, egia hel eraztez gezurra barreiatu eretzetara. Bena noula utzulbotz emaniala ? Egina egin da ; zer hobe erranik, oraikoa joan da, gerokoari gomenda ? Arte hartan gaichkia bere bidian badoa ; izanen dira eginik legiak galgarri herriaren, departamentiaren, Frantziarentako ; eta ez ordu.

Badira ouste dienak, botz eman ala ez eman bardin dela : gaintia da hori. Ezpada emaiten izan behar elukiana deputatu sartzen da. Ezin ukhatzen dena da, bat bederak ororentako egin ahala zor diala ; egin nahi eztianak kontzentzia kargu diala. Eta gaichkia burutan joaiten bada buhurtu faltan, ahal zelarik buhurtzen, falta harena da.

Eman behar da hortan ahalaz zuhurki, egiteko handienetan bezala : galtha, nourk bere buriari, nouri hersa litakian behar balu sorthatu berari edo beraierner lizatekian lan handibatez. Holaz botzemailek emanen datie botzak jakin araoka, behar dian bezala egin khristi eta herria maite dian batek, ez egiteko gain-tirik, ez eta buruzkingoarik. Eta merechituko dutie Jinkoaren lagungoa, Elizaren beneditzionaik eta Herriaren cskerrak.


\*\*\*

*Botz emailer aholku.* — Nahi guntuke armanak hountan goure herritarak aholkatu legiak emaiten deitzen zuzenetan gañen.

Ourthe guziez, jaon merek herri bakhoitzian, egiten die botz emailen lista. Lista hora berantenik ourtha-rlila hamabostgerrenian herriko eta meriako segrerariaren etchen ezariko du. Botz emaile guziek badie lista haren galthatzeko eta ikhousteko zuzena ; badie

ere orok beste botzemailen izenen izkiriba erazteko zuzena, hala noula huts eginik edo behar gabetarik ezaririk direnen ezaba edo khurutcha eraztia. Hartakoz galthobat egin behar da lista oihustatu edo agertu den hamar egunetan. Martcho hilabeteko hogeita hameka gerren egunian jaon merak chuchentzen du lista galtho heltien araoi.

*Botzemaiteko egunian.* — Deputatukako bozkan jaon merak du bureua gidatzen berekin hartzen duti larrik laor kountseller gehienak. Goure adichkiderik ezpada haietan, aholku emanen deregutegi egun orotan merian egon ditian bat edo beste, ahalaz biga batetan. *Ez zer nahi izanik eitzi ountzia, ez minutabat ere, begietarik galtzera.*



### KARGULANTAK ZER KHOSTA DIREN

**L**ANETIK bizi denarentako ezta deuserhogarriago-rik noula ikhoustia zounbat lan guti eginez bizi diren kargulant herabesti eta nagi batzu, eta zer diharutze izigarria eroaiten dien ourthe buru batek bestiala. Oro goure bizkarraren gañen bizi dirade guk hazten dutugu eta halere esker tzar eta larderia baizik eztie gouretakoa.

Eztut horregatik erranen eztela kargulantik behar; bena noulako izan behar diren, eta zounbat, jakitia da oro. Egiazki behar direnak begira, eta jokha niro gogo hounez laoretarik hirour behargabekoak direla.

Munduko nazionetan Frantzesak du legar haboroenik phakatzen; batabeste, bada jentekal ehun eta hogeitabost liberarena abantzu. Kargulanten phakatzeko guk dugu ere haboroenik emaiten. Aizoko nazioniak ikhousten tugularik abalaz kargulantak eta kargiak izari doian etchekiten, goure gobernia ari da

thai gabe kargulanten eta kargien emendatzen. Noun erebeitugu hamar kargulant, Anglesek badie bat, Aleman, Autrichiano, Belje, Holandes, Italiano eta Españoulek badie laor gorennetik. Eta kargiak khosta direlarik jentekal, 6 libera Suisan, 8 lib. ipharalteko Amerikan, 10 lib. 33 Angleterraren, 11 lib. eterdi Holandan, 14 lib. Autrichan, 15 lib. Beljikan eta Prusian, goure herrian khosta dira *hogeita laor* libera.

Houna ministeriokal azkenik eman dutien kargu sarien khountiak :

Atzeko egitekoen ministerioan (Affaires étrangères)

	8 miliou eta	153 mila libera
Laborantzakoan .....	11 »	148 » »
Kolonietakoan.....	18 »	484 » »
Komerzio eta postetakoan..	116 »	674 » »
Finantzetakoan.....	133 »	116 » »
Gerlakoan .....	126 »	928 » »
Instrutzionalekoan.....	210 »	875 » »
Barneko egiteko etakoan (Intérieur).....	39 »	385 » »
Juztiziakoan .....	35 »	056 » »
Marinakoan.....	39 »	567 » »
Lan publikoetakoan.....	37 »	152 » »
Ministerioak oro boti...	776 »	538 » »
Goure gobernazalen phakiak: President, deputatu eta senadorek eraikiten die.....	10 »	902 » »

Gobernuko kargulantek orok  
boti eraikitendie ... 787 » 440 » »

Eztira orano kargulantak oro hor : badirade departamentien khountuko bederatzu mila, hamazei miliou phakaturik direnak ; hiri eta herrien khountuko ehun eta hamazortzi mila, phakaturik beitira botian ehun eta laor miliou.

Eta zaharbidunak (edo erretretatiak)? Hourak bestalde. Hain ountsa noun kargulanten phakutan *laor*

*etan hogeitabost miliou, miliartaz goiti phakatzen  
beitugu !*

Hainbeste kargulantekи uduri luke ountsa zerbutchaturik izan behar ginantekiala, beste zouin nazione beno hobeki : ezta, aitzitik, nazionerik noun jentia Frantzian beno gaichkiago zerbutchaturik beita.

Kargudun hoietan, zounbat ezta astian egun erdi baten lana egiten eztianik ? Egitekobati buruz ari dira biga, laor, sei, hamar mithil eta naousi... mithil beno hanitchez naousi gehiago. Harat hounat hor dabilza, houñez, zaldiz, karrochaz, edo burduñbidez, edo orano bi errotatako tresnaren gañen, uduri zerbait ari direla.

Parisen nintzanian eskoletan, ezagutu dut Lan publikoetako ministerioan enplegatubat, eta ountsa ezagutu zounbait ourthez harekin ber ostattian janik : eta arren kargulant hora joaiten zen bere lanialat arrastiriko hirour orenetan, eta ministerio hora zerratzen beitzten laor orenetan, tenore hartan etcheat edo kafialat utzulzen zen. Bazen ere egun franko ezpeitzian bere bureuan zankhorik sartzen. Eta phakaturik zen laor mila libera !

Orai ere ezagutzen dut Parisen hiri berreko kargulantbat. Bere denbora eroaiten du tchostaketan edo gasetetan izkiribatzen. Badu zappi ourthe eztela bere bureuijan sarthu, eta bethi bere phakia eraikiten. 1895 ourthia artekan joaiten zen Pariseko meriala phaku haren eraikitera. Geroztik, araoz haren houñen ez sobera higa erazteko, eztie batere amurratzen eta kargulant lagunbatek eroaiten dero phakia bere etchera ! Ezin sinhesteko da, eta halere egia ; bata eta bestia hanitch ountsa ezagutzen dutut.

Zounbat kargulant ezta bazterretan higatzen, herabesti, zotzik chouritu gabe ? Batak arraintzun, bestiak ihizen : bidez bide, ostattuz ostattu, jan eta edan. Deusere hounik egin gabe zer nahi irabaz... edo chuchenkiago mintzatzeko, irabazi gabe bil, bil... Eta halere, usiegi, beriaz egiteko ez houn : hanitcek hanichtto

zor ; kargudun handienak, gutien oustian, zorrik handienak.

Areta ederki phakaturik dira ! Parisen berian hanko jaon prefetak badutu berrogeita hamar mila libera ourthian ; halaber Parisen den biggerren prefetak « préfet de police », beste edo zouin prefetek hounkitzen du ourthekal, hiriaren araoka hogei mila liberatarik eta berrogei etara drano. Den suprefet tcharrenak badutu laor mila eta bost ehun libera. Eta finantzeten badirade kargulant elibat beitie phakutako ehun mila liberatara drano, ezpada ere haboro, eta hetarik bat bada departamentu bakhooitzian ! Ikher bagintza chokhoak oro ederrik ikhous giniro.

Gorago errandugu hainbeste kargulantekin Frantzia dela nazione egiazkoetan gaichkienik zerbutchaturik. Eta orano hanitchetan ari dira nountik legar phakazaliak therritatuko dutien, eta ozkituren.

Houna urhentzeko istoria egiazkobat, Parise ungu runetan heltu dena eztu hanitch ourthe. Hartarik age riko da ezinago klarki, goure kargulantak eztirela goure thipilzezo eta burutik joan erazteko baizik. Etcheko jaon laboraribat egoiten zen gobernuko oihan handibaten bazterttoan. Bethi bakian bizitu zen aizoko oihanzañekin, eta ere hetarik nouizian behin ukhen zian, dihari khostuz erran gabe, zerbait lagungoa eta zerbutchu. Oihanzañ gehienak salzen zian aizoko laborravier milabat zuhaintze lanthare tchipi laor edo bost liberarentako. Errandelako etchekojaon harek erosten zutian ourth'oroz lagunek bezala, eta hirilat bazouenian phakatzen zutian lanthare hourak, errezut baten truku, « receveur des domaines » deitzen dien kargulantari. Diala bi ourthe izan zen usatu bezala bere laor liberen emaitera lantharen gero biltzezo. Bena haodela, kargulantak ezteitzo hartu nahi, erraiten derolarik : « Adichkidia, ene aitzindaribat heben igaran duzu orai berri, eta eztizu nahi heben harat orai artekan bezala egin dadin. Nahi dukezunian lanthare,

beharko duzu galthobat egin, hamabi soseko paper baten gañen eta arrapostia uguruki. »

Egiazki ordartio usatu manera chinplegi zen karkargulant aitzindariarentako. Houna geroztik noula douatzan egitekoak. Galthoaigor, eta enkestabat egiten die galthazalian gañen jakiteko eia phakatzen ahal dianez eta phakazale houn denez ; gero galtho papera badoua inspeturra gana. Inspeturrak irakourtu ondouan hel erazten du « conservateur » denari ; haren bureuetan egoiten da dozenabat galtho bil artio, edo dozenaka bil artio. Gero galtho hourak oro igorten dutie Laborantzako ministerioalat. (Zerbaitetako baliatu behar da ministerio hora, denaz geroz).

Zounbait denboraren burian, paperak athetu direnian erran ministerioan, ministroak hel eraztentu galthoak, beste paper elibatez bidian loditu direnak (enuesta eta baimen suberte orotarik), Finantzetako bere khidiari.


Finantzetako ministerioan egoiten dira guti edo hanitch, eta azkenekoz « receveur général » denari igorten die galthoa eta laor liberaren hartzeko baimena ; gero helzen da « receveur particulier » denaren bureuetara, eta gero legarkariarengana. Kargulant horrek igorten galtho egiler paperttobat erraiten derena behar dutiela phakatu laor liberak, eta fresak bestalde.

Bena noula paperek bidaje hoietan denbora hanitch jaten beitie (sei hilatete Pariseateko joanjina) lanthariak ukheiten ahal dutienan, ezta haboro lanthatzeko haro, eta orai, aiphatu laborariekin nahigo dutie bestetan lanthariak erosi.

Horra zer lan aoherretan higatzen diren usiegi kargulantak. Orok aithortzen die sobera badela. Nour da aski erne izanen daigun khanberako deputatietan gainti horri jatzartzeko : kargulant doia baizik ez begiratzez goberniak eginen du mouzkin ejerrik eta menturaz legarrak aphaltuko. Bena oraikoak eztira hortarik ari : kargulantek sobera ountsa laguntzen beitutie bozketa.



## DAIGUN JESAITIA



**B**OZKA hullantziari deputatu gei guziak jiten zaizku erranez behar dela zuhurtze egitekoetan, eta berheziki laborariak sustengatu behar direla.

- Ezin ukhatia da Errepublika hounen hatsarrian, chouriek, buruzagi zirelarik, phakatu zutiela gerlak erazi zorrak, eta ourthekal, budjeta herenaz oraikoua beno tchipiago zelarik, zerbait mouzkin bazela. Gorriak goberniala heltuz geroz besterik da : ez gehiago mouzkinik, budjeta eta zorra gorenturik herenbatez edo nounbait han. Orok badakie, bena houn da arra erraitia, goure oraiko deputatiak usatu elhiak churulatu deritzkula bozka aitzinetik :

« Etcheko nausi handi Eskual Herrian naizen bezala, zioan, zuen intresak nereak dire. Hori da erratea laborantzako kestionez arranguratuko naizela gain gainetik.

« *Zergen gutitzea, laborantzako kargen ttikitzea, mendietan aberen bazkagiaren fagoratza, bihiaren, ilhearen eta aberei prezioak aski altcha eraztea, hori izanen da ene arrangurarik handiena eta guzietarik lehena.* »

Ditzagun ikher goberniak egin edo erazi dutianak laborarien hounetan, eta legarren arhintzeko ; eta M. Berdolyere bere aldetik noula kobratu den goberniaren egintzen eretzian.

M. Meline denak, ministro heltu, eta erraiten zian haren antsia handiena zela laborantcharen hounetan aritzia. Badu hamasei hilabete hori arra erraiten diala.

Bena, oraikoz dakiguna da laborantcha errekalat buruzari dela, ohi bezala, eta ministroaren elhe ederrak izanegatik. Noulaz besterik zatekian? Atze herriatarik sartzen dira kabale, ilhe, larru, ourin eta gaiza orotarik, aitzineko ourthetan beno hanitchez haboro, eta laborariekin behar dutie berek egiten dutienak saldu mouzkin batere gabetarik edo galzeten. (Hurrunchago zerbait erraiten dugu atze herriatarik sartze horietan gañen.)

Haien illusitzeko aiphatu die azken deputatien bil-khuretan, laborari chehek dutien lurretan gañeko legarraren idokitia. Bena ezta holako hitzari sinhestekorik. Idokirik ere legarra, nountipaitik bildu beharko dutie haren orai artekan emaiten zutian 25 milioak, eta beste gisabatez phaka eraziko, nahiz ezteikien erran noula. Eta zer dira 25 milioi horik phartitzen badira laborari chehe guzien artian? Burutik bilhobat berberaren idokitia bezala dateke.

Laborariekin bethi danik galthatu die despendio gutiago egin dezan goberniak. Deputatu geiek uduri erazten die gorago ikhousi dugun bezala ber urhatsetik ebilikoi direla. Gero, gorriak heltu diren bezain sarri khanberalat, eztira arrankuratzen hitz emanet beren haorzakoro chatharrez beno haboro. Chouriak berbera ari dira laborarien hounetan. Ezin ukhatia da laborantcharen kountra edo galzeten egin legiak gorriek dutiela burutan joan erazi, eta laborantchak ukhen dutian abantallak oro chouriek erazirik direla. Bena noula ezpeitira buruzagi eztie ephantchatu ahal ukhen budjeta ourthekal 50 miliouz gorentziaz. Orano gorentze horregatik hountzen baliz zerbait mouzkinekin! Bena aitzitik, ourthekal bada ehun miliouz goiti sos sarthu beno haboro despendiaturik. Meline denak, zounbat nahi bere buria laborantcharen adichkide edukiten dian, aitzineko ministroek bezala egiten, eta laborariak ourthiaren burian ikhousten du legarka-

riak igorri paperetan aitzinekoan beno zerbait haboro badela phakatzeko. Biba gobernia !!!

Azken budjeta heltzen zen hirour miliart, hirour ehun eta laor hogeい eta bost miliou etara. Eztutugu aiphatten oundarreko ehun mila liberak : gaiza arhina dira holako budgetian. Eta chifru hortan eztira ezarririk departamentu eta komunetako despendioak. Goberniak nahi zian oustekeriatan sar erazi bazatekiala zounbait ehun miliou mouzkin. Bena ehi senadoretegiko chouri zounbaitek gezurtatu die. Eta fountsian jinphidiak baratuko dira, aitzineko ourthetan bezala joanphiden petik, berrehun miliouz phuru. Utzulmouzkin ejerra ! Hortan sartzen dira budjetaz kanpo egin diren 87 miliou despendio, goberniak phakatu gei dutianak « fonds d'emprunt » diren batzuz ; halaber 72 miliou, zorraren arhintzen ourthekal baliatu behar lutukien ehunetarik : ezi goberniak eztetu khountatzen ahal 28 miliou baizik. Eta gero badira beste despendio suberte elibat, budjeta hountuz gerroztik eginak.

Egin dutie bost joan outhe hoietakoa budjet eskazen kountiak, eskazaithortienak. Aorthenkoari juntatzez orok boti egiten die zazpi ehun eta hogeita hemeretszu miliou. Eta eskaz ez aithortiek emaiten die gutienik bost ehun miliou. Horra hortche berian miliart eta berrehun milioutako zilobat. Goiz edo berant beharkodu goberniak jesan miliart eterdi zilo horren eta beste tchipi zounbaiten thapatzeko. Berantu die ahalaz eta berantuko ere orano beharbada, bozka joan artekan. Hartaraturik gira nounbeitugu 31 miliart zor (hirietakoak gabe,) 38 miliou jente delarik Frantzian ; goure hirour etsaiek boti, aldiz 30 miliart zor badie, hirour erresouma hoieta delarik 110 miliou jente.

Hola noula gorriek bere hitzak etchekitzen dutien : botz galthatzera jiten direnian goratik ari dira, « éco-

nomies, diminution d'impôts » ; budjeta eta legarrak bethi gorentzez badouatza, azkenian.


Areta aisa lizate « économies » ederrik egitia. Orai artekan gorriek egin die, egia bada ere, erreligioneko budjetan gañen : beste guzietan halakorik egin balie oraikoz zorrak oro phakhaturik guntuke, eta elizate orai dutugun legarren erdia ere. Zounbait ourthe hountan zinez herturik da, eta aorthenkoaz ai-phu, haren hountzalek nahi zutien halere idoki sei ehun eta bost mila libera. Gehienik tchipitu tie elizen erreparatzeko somak : orobat zeie azkenian elizak ero-ririk ere. Baziren 18 mila eta bost ehun libera laguntha egiteko aphez zahar eta ezintu kargu gabe zirener. Etzen handi, eta hatik sobera zounbait gorrientako.

Gorago ikhousi dugu zounbat kargulant aoher hasten dian Frantziak : zertako arren ez haiatarik begira doia baizik ? Badirade « écoles normales » deitzen dutienak errejent geientako ; haiatarik erdiak badie eskolier bezain beste buruzazi ezpada haboro, eta ountsa khostarik dira goberniari. Zertako ez laor departamentu entako eskola hetarik bat baizik begira ? Zeren-tako orano nahi dutie hanitch herritan serora eskola egiliak igorri ? Eskola katoliko egin dien leku hanitzetan, errejent eta errejentsen eskolak kasik hutsik.

Azken ourthetan gobernuko eskola chehek galdu die 70 mila haor, bestek aldiz haborokin berdenboran bildu 77 mila. Elizate deusere budjetarentako, ezpalira seroren igorte horik hanitch khostarik. Bada orano 8 mila eta 555 eskola seroren eskietan ; haien igortiak 4 milioutako despendiobat eraziko du ourthekal errejentsen phakietan berian ; eta 69 milioutakobat, ezpada gehiago eskola etche berri eraikiteko. Zer ! ezin hount ourtheko egitekoak zorretan sarthu gabe eta nahi orano bidegabe diren despendio berri egin ! Hori dela goure gobernazalen erhokeria. Eztukie phaosurik noun ezgutukien bankarrotiala hel erazi ezpadira

arte hountan botz emailiak amiñibat iratzartzen eta khanberatik igorten sohazle gorriak oro.

Bagunuke orano hanitch erraiteko chokoak oro cheheroki ikher bagintza. Hortan baratzen gira ; aski erranik badugu konprenitu nahi dienentako. *Zer egin du goure deputatu kharioak, M. Berdolyk gainti hoien ororen bardintzeko ? Deusere : bethi bai erran goberniak erazi despendioer eta legar berrier.*



### ORRIAGA : ARROLANEN HILTZIA



**G**AIHERDI da. Errege Karlomano Aoritz-berrin dago bere armadarekin. Zelu ulhunian ezta ageri, ez argizagi, ez izarrik ; hurrenian sugar handi batzuk argitzen die mendiartetan. Frantzesak khantuz ari dira herrian. Altabizkarreko ungarunetan azalia egiten die otsoen izigarriko orroek eta holatan Uskaldunek zorroztzen dutie bere eztenak eta aizkorak Ibañetako harri eta harbotchietan.

Khechu eta erreus, Karlomanok eztiro loik har : ohe sailhetsetik bereter batek irakourten derio amoriozko khountubat. Hurrunchago Arrolan gaitzak argitzen du bere Durandal ezpata aiphatia, eta Turpin artchebisko hona ari da Jinkoaren Ama saintiaren othoitzen.

« Bereter maitia, dio Karlomano erregiak, zer da gaiazko ichiltarzuna haosten dian herots hori ? — Jaoна, ihardesten dero beterrak, itchasoa beno zabalago den, Irati oihaneko ostoak dituzu aiztiak erabilten. » — « Ah ! haor maitia, heriotziaren deihadarra uduri dik, eta bihotza lazten zitak. »

Gaia ulhunbelzturik da. Argizagirik ez izarrik ezta ageri zelietan ; hurrenian sugar handi batzuk argitzen die mendiartetan. Frantzesak lo daode Aoritzberrin ;

Altabizkarreko ungurunetan otsoak orroaz ari da, eta Uskaldunek zorrozten dutie bere eztenak eta aizkorak Ibañetako harrietan.

« Zer da herots hori? » galthatzen du Karlomanok ; eta bereterrak, loak harturik, ezteio ihardesten. — « Jaona, dio Arrolan gothorrak, mendiko hour tourrousta duzu, eta Andresaroko arthaldiaren marrakak. » — « Intziribat uduri dik, » ihardesten du errege frantzesak. — « Hala duzu, Jaona, dio Arrolanek ; herri hounek nigar egiten dizu gutzaz orhitzen denian. »


Ekhuru gaitz, Karlomanok ez diro loa bil ; zelu lur-rak argigabe dira ; otsoak orrokoz ari dira Altabizkarren. Uskaldunen ezten eta aizkorek distiatzen die Ibañetako haritzartetan.

« Ah! dio hasperenez Karlomanok, eztiroket loa bil ; suharrak erratzen nai. Zer da herots hori? » Eta Arrolanek, loak uzkurturik, ezteio ihardesten. « Jaona, dio Turpin honak, othoi ezazu, othoi ezazu enekin, Herots hori Uskaldunen gerla ahairia duzu, eta hao, goure umen handiaren azken eguna... »

Ekhia argitzen dutu mendiak. Garhaiturik ihesiari emaiten du Karlomanok bere hegats beltz eta kapa gorriarekin. Haorrak eta emaztiak jaoziz ari dira boz-tarioz Ibañetan. Ezta atzerik Uskal-Herrian, eta mendiatarren oihiaik heltzen dira zelietarano.



## LABORANTCHAZ



### I. — Uztak 1897<sup>an</sup>

**J**OAN den ourthian ogi uzta ederbat balinbazen ez-tikake hullanik ere holakorik erran aorthenkoaz Aldebatik ogitan lur eremu phouskabat gutiago erein die ; bestetik, ereitzetarik landan haroa lu-

zaz eurizu izanik, ogiak hutsal baratu, eta belhar gai-  
chtoek hanitch lekhutan gañia hartu, eta zouin eret-  
zeten eztie eraiki uzta erdirik ere. Laborantchako ga-  
setek eman dutie usatu bezala mundu orotako uzten  
berri. Frantzian, dioienaz, eraiki die 83 miliou ektolit-  
ra ogi edo nounbait han. Ezta aspaldiko ourthetan  
hao beno tcharragorik izan 1891 kanpo. Ordunko ogi  
uzta heltu zen 77 miliou ektolitratara berere. Prefeten  
bidez eman chifriak gorago dira, bera armanak hou-  
nen irakourzaler erakoutsi dugu eztela sobera fidatze-  
korik haiet eman berrieta, eztirelakoz aski hersat-  
zen haien emaiteko laborarier.

Noula Frantziako beharrunentako behar beita 120  
miliou ektolitraren ungarunia, ehi ikhousten da aor-  
thenko eskaza herenbat hullan deragiala. Eta ogien  
 prezioak hañ aphas zirenak azken ourthian goratu dira  
zinez. Beste artikulubat etan erraiten dugu zer phen-  
tsatu behar den goarentze horrez, eta noula arrakhar-  
derak ari diren prezioen khordoka erazi nahiz. Bera  
ezta sobera arrankuratu behar prezioak goratto joa-  
nik ere, eta jadanik aphaltuche dira. Ezi bada orano  
aitzineko ourtheko ogi oundar frankomenturaz behar-  
runiaren bardintzeko doia ; Nord-Amerikak baduke  
kanpo igorteko 60 miliou ektolitra, eta daigun ourtha-  
rilan, orai bezala uztak balinbadoatza, peko Amerikak  
eta Australiak badukie ogi soberakin handia. Ez  
gutu arren gosiak hilen, eta ogiaren prezioa ezta go-  
rago heltuko.

Ogien kalitatia ezta chaz bezain houn, eta phezia  
artekobaten petik du. Frantzian bezala Uropako baz-  
ter guzietan ogi uzta eskazak egin tie, Autrichan eta  
Arrusian salbu, eta beharko die sar erazi atze herrie-  
tako ogi guti edo hanitch.

Beste ereitziak ezdutu hain gaichki erabili haroak :  
sekale laordenbat gutiago hatik eraiki da Frantzian ;  
garagar eta olho bazen eijerki nahiz aitzineko our-

thian beno gutichago, eta artoak orotan kasik eder ziren.

Mahastietako berriak tchar, ardou aiphatientako berheziki ; guneka bazen mahats, bestetan batere. Larrazkenari buruz jin egun ederrekin ountsa laguntutie mahats orano bildu etzutienak.

*Uztak Ziberoan.*— Azikak gaizki egin ziren 1896<sup>an</sup>, larrazkenian denbora bestetan bezala eurizu beitzten, ather arteka, eta lurra hanitch bousti zelarik. Ogiak nekez eta bekhan sorthu, berheziki buztan lur eta hourtokietan. Udal eztutu ere hanitch laguntu ; izan da bethi ubel, eurizu, lanhozu, zohart ihitz edo izar ihitzik batere gabe. Ogia ezta arpatu usatu bezala denbora ez aski althe izanez ; lilian galdu da hanitch eta botia ezen batere aberats ; bihia ez net hazi eta chehe baratu. Laborari zounbaitek eztie upta usatutik herenbat baizik egin, bestek aphurrago. Bata beste ezta upta laordenbat baizik. Gaicho laboraria ! Eztu denbora erdiaren ogia beno haboro ; berak dioana, igantez jateko doia.

Arthoak ereñik izan dira lurrik ountsa erabili oundoan, eta jorratu ziren haro ederrarekin. Zankhoak handitu eta loditu senthoki ; osto eta thini hanitch eman die. Buriak ere aski lodi eta luze, bena phuntalat bihi chehe edo gabe hanitch bada. Leku aphaletan ountsa zorhitu dira ; bena denboraren bethi hotz izanez eta izotz garratzbat egink urrieta 8<sup>an</sup> eta ondoko egunetan, bortu eretzetan zorhi eskaz baratu. Horregatik badugu arteko artho uztabat.

Lanhoek eta euriek ogen handi egin die lur sagarrer ; aski larritu gabe, ostoak lanhatu eta eihartu zeitze, eta sagarrak chehe baratu. Berant idoki dutiener hanitch hirotu zeitze, eta barhek beste hanitch jan. Ere lur sagar guti izanda.

Mahatsaren abio thenoreko izotzek hanitch galerazi zien. Baratu zenari egin ahalak egin eritarzuner buhurtzeko, eta halere gaitzak jo beste ourthez beno borthiz-

kiago, haroa hotz eta eurizu izanez araoz. Hountu den aphurra hirotu berouña phuntian eta eztie egin usatu ardoutik hamaggerrena baizik. Langilen indarkak oro, denbora joana, despendioak, denak gal! Ezpeita segurki gocho.

Gaztaña ejerki izan da, nahiz goizik zorhitu zelakoz eta batetan, mouhourka hanitch destuatu diren. Sagar guti abiatu eta den aphurra nokuzu agitu, erori eta hirotu aski handitugabe.

Belhar hanitch izan da ; bena bedaka nekez egin, eta luzaz iraň. Halaber arradall hanitch egin die, bena houn guti sarthu eta hanitch egiteko baratu, denbora ez althe izanez. Bortian ere etzen bazka eskazik : kabalek halere eztie hoberik ukhen, jan behar ukhen dielakoz boustirik.

Ourthe tcharra arren, gisa oroz :ogi guti, ardourik ez; ilhiak eta kabaliak geroago eta merkiago ; legar eta phetchak geroago eta handiago. Eztaiteke luzaz hola iraň, Jinkoak ezpagutu laguntzen.

## II. — Ameriketako kabaliak Frantzian.

Nounbait hortche bost ourtheren altia badu peko Amerikak esprabu elibat egin dutiala bere behi eta idi saldouen bizirik ountziz igaran erazteko Frantziarat. Nahiz lehen aldietako igaraitetan goure Amerikanoek galtze handirik egin dien kabaliak zeitzelakoz mehatu eta makatu itchasoan gainti joaitian, eztie gutiago eman hasi lanari, eta houna noun egunko egunian, aprendizgoa eginik, chuchenkaigorraiten deikien kasik aste oroz Pariseko merkhaturik handieniala mila eta berrehun idi, batere leheneko aldietan bezala Normandiako sorhoetan bazkatu gabe, arakhinalako prest prestak. Bere ountzietan egin deitze kabale bakhoitzari tegi bedera eta hourak kapitonatu, erran nahi beita pharetiak mardoki madolatu, ountziaren ikhara eta

igaitzek haboro ez makatzeko gisan, eta gero han arthoz asia eman.

Halaber eztu aspaldilehentze heltzen zela Bordelera ountzibat berrehun idiz kargaturik ; eta geroztik ere izan da besterik. Holaz diharia ehun mila liberaka joan eta joaitenda Frantziatik, hounat ez haboro utzultzeko.

Ihourkerek asmatuko etzutian atzetik kabale jite hoiek Frantziako kabaliak merkaerazi dutu ; horregatik eztie Pariseko jentek net ezagutu kabalia frankatu dela, ez aragia merkatu, bera bai kabale hazlek ouste beitzien azken ourthe hoietakoa kabale hertzetik landan diharu ejerrik eraikiko ziela.

Uduripen ororen araoera, Amerikak aitzina emanen du bere kabale saldo izigarrien itchasoz Frantziarat igortiari, hain ountsa burutan joan denaz geroz azken iseietan ; eta sarri eztateke Parisen eta beste Frantziako hiri handienetan Ameriketako idi baizik jateko. Hola joanez egitekoak etzaiku gouri deus baratuko baizik eta arruina eta miseria.

Ez ouste ukhen goure herriko kabaledunak deusetan ere bardintzen ahal diala itchasoaz bestaldeko kabaleduna, eta hori hanitch arrazouegatik. Heben laor edo bost ourtheren geñhia khostatzen zaiku idibat arakhinalako houn ezteno. Haienak aldz sortzen eta bizitzen kanpo zabalian, sekula hegatzpian izan gabe, sekula belhar idor mouchia jan gabe ; erran daiteke kasik deusere khosta gabe hanko naousi irousari. Ulhain batek, zamarian gañen zortzi edo hamar mila burutarano begiratzen dutu, eta zer da haien begiraria ? « Gaucho » deitzen dien gizounbat, erdi basa, lehen heltiarekin ezkountzen den bat eta halaber deseskountzen. Bera bezala emaztia haren oundotik batabila zaldiz, haor trochan sokaz estekirik. Basa jente hoiek, indiano eta spañouletarik jiten direnak, binazione hoien bizioak bildu dutie, deus begiratu gabe hajek dutien houn unetarik.

Erran gabe doua, holako kabale zainbat guti khos-

tatzen dela naousiari, eta gutiago behar bada kabale saldo haien bazka eta lurren legarra. Holaz amerikano hazlek nahi dien bezainbeste kabale haz diroie, eta Frantzian sar eraz, guk beno merkiago saltzeko. Ehi Parisek behar dian aragia eman ahalko die ere geroalat, erran nahi beita, bost edo sei ehun mila idi ourthekal, horrek eginen beitu laor ehun miliouren unguaria goure mouzkinetarik joanen direnak Amerikalat, han miliounaide judio zounbaiten hobeki aberasteko.

Ezta enthelegia hanitchirekirik ukhen behar ikhous-teko Frantziako hazlia, ala handi ala chehe, eztela tematuren partida egitera hain merke kabalia salzen ahal diener, eta ordian, emeki emeki, herriko kabale hazieta hertuko da sekula ihourkere ikhousieztiangisan. Hortarik landan ikhousiko tugu uztak tchipitzen eztatekialakoz gorotzik egin ahalko, eta ordian dateke osoki goure eta aiterriaren aorritzia.

Parisek eta hiri handiek jaten dien aragiaren fornitzia atzeherriak, hori da mene (edo lanjer) ondorio garratzak daduzkanbat. Ezi Ameriketan gaizak oro lekhubatetara athetzen dutie, hantik salgiala botatzeko. Parise holako salzalebaten pheskizan ountza dateke : merkaturen eta kharioturen dero kabalia eta aragia plazer dukian bezala, eta gosia ere ezariren phiska ala lotzen zeikonian. Zer eginen du hirour miliou jente dian Parise bezalako hiribatek aragi freskik gabe ? Egia bada ere, gosia beno lehen, jin eraz liroala aragi ountzietan tinkaturik edo kharoaren medioz fresk begiratzen denetik. Eta azken hao, arakhinak berri ehoa bezain fresk uduri du. Anglaterran nihaoren begiz ikhousi dut merkhatietan holako aragi, ezpeinian segur fresketik berhezi ahalko jakin ezpanu.

Zer nahi den, boullta horri aitzina emaiten badie Amerikanoek, neke date haier buhurtzia ; ezi denbora behar da kabaliaren populkatzeko. Eta gero Parise eta hiri handietako praktikaren galziak, eta horreki

miliouak ehuntakaz ourthoroz kanpo joaitiak, eraziren die hedadura handitako zorgaitzbat, Frantzia baster orotan egariko duguna. Horra zertara goatzan ezpada gobernia behar den chedetik ari, mehatchatzten gutian aorritziaren iraizteko.

Eztira behi eta idiak berere hola sartzen goure herrian phetcha doiik phakatu gabe. Zerk erazi du azken bedatsiaz geroz chahu ourde eta cherrien prezioen erortia? Sarri hobe dateke bakhoitzik ez hartzia, etcheko doia baizik. Hortaraturik bagira, ezta batere sobera hazten zelakoz, zounbaitek sinhets erazi nahi lukien bezala, bena sobera sartzen delakoz atze herriekarik Frantzialat, edo bizirik, edo hilik, fresk edo gaziturik. Halere arakhinek hiri handietan eztutie prezioak net tchipitu. Bena badakigu bethi hola egitia usatu diela.

Geroko harrigarri dena da hanitch laborarik eizten badie ourde hartzia, bertan atze herrietako pheskizan giratekiala, eta hanko hazliak lehiatuko direla prezioen gorentzera. 1895<sup>an</sup> dira izigarritan goratu atzetik ourde eta cherrien sartziak. Anglaterratik jin da 2,500 ourde, Holandatik 16,788, Espaniatik 38,241, Algeriatik 3,125 eta beste herriekarik 4,797 (oro boti heltzen da khountia 65 mila ourdez goiti); cherri sarthu da Espaniatik 14 mila eterdi; beste herriekarik 14 mila hullen. Ezpeitzien behin ere segur ikhousi holako saldorik doanan gainti igaraiten. Chifru horik ezin ukhatiak, eta Komerzioko ministroak berak ezagut era-zirik. Azken ourtheko lehen bost hilabetetan sarthu ziren berrogeita hirour mila eta zounbait ourde eta zortzi mila hirour ehun cherri, 1894<sup>an</sup>, ber hilabete-tan etzelarik sarthu 6,000 ourde eta 822 cherri baizik. *Berrogeita zazpi mila 4 ehun eta 43 ourde aldebatik, bestetik zazpi mila 4 ehun eta 88 cherri haboro!* Geroago eta hanitchez haboroago. Ourde haragiaren eta ourinaren khountiak egin bagintza haietan ere zer gorentziak! Ber hilabetetako chifriak horik direla:

1896<sup>a</sup>n sarthu da 1894<sup>a</sup>n beno haboro, 973 mila kilo ourde aragi fresk, miliou eta 627 mila kilo aragi gazitu eta ourdazpi, 7 miliou eta 228 mila kilo ourin.

Ezta handi arren ourde eta cherrien prezioak hain aphalturik badira. Eta zer egin du laborantcha hain maite dian M. Méline ministroak gaitz hori buhurtze-ko? Deusere...

Aipha dezadan orano bazterrialat eitzi gabe beste kabale prezioen ahal erazlebat. Lehenago arakhinek hartzen zien bere mouzkina Frantzia behere hortan deitzen dien bostgerren phezan. Horrek emaiten zian Pariseko prezioan, 500 kilotako idibatentako :

Ganza 35 kilo..... 21 libera.

Larria..... . 37 —

Oundarrak(ikhouska) 14 —

72 libera orotan. Bena orai ganz eta larriak atze herrietarik Frantzian sartzen beitira phetcharik gabe, leheneko prezioak ahal erazi dutu eta arakhinak bostgerren phezatik eztu haboro idokiten 51 libera eta 17 sos baizik, hoge libera eta hirour sos gutiago. Bena ezpeitu holako galtzerik egin nahi, hazliak egari behar du nahi edo ez, eta haboro ere. Eziarakhinak hazliari phakatzen deitza 500 kilotako idibaten 250 aragikiloak bi sos gutiago bakhoitza : halaz 20 libera eta 3 sosen bardintzeuko bilzen dutu 25 libera.

Beste hanitch gaizarentako bardin.

Hitz bat orano Ameriketako zamariez. Amerika, idietzaz bestalde, hasizaiku igorten zamari eta zamari. Bena noula han kabaliak hanitch merke beitira eta ezpeitie Frantzian sartzian hogeita hamar libera baizik phakatzen sargia sari, ehi ikhousten da sarri goure herrian zaldi haztiak eztukiala ourde haztiak beno haboro balio. 1888<sup>a</sup>n saltzen gunian atze herrietarat 25 mila zamari hetan erosten gunian beno haboro; 1895<sup>a</sup>n erosi dugu 15 mila zamari saldu dugun beno haboro.

Calvados departamentuko deputatu chouri batek khanberan erakourtu gei du legegei bat, gainti horik

oro bardintuko dutiana. Jinkoak detsala burutan joan dadin. Ez eztugu sobera esparantcha ezari behar goure oraiko M. Meline ministroan. Eztu aldatzerik nahi douanako prezioetan, eta eztaki elhe houn baizik emaiten laborarier. Bena azkenekoz laborariak asecherik dira goberniak thai gabe churulatzen deitzen elhe hounez.

### III. — Ogiaren prezioa.

Erran zaharbat da batzien hounetan dena besten gaitzetan dela. Eta goure Ziberoan laborari haboroek nahiago badie ogia merke phakatu, ogi hanitch egiten den eretzetan nahiago lukie khario saldu. Ber eretze haietan houn zaie kabalen ahalaz merke eros-tia ; aldiz kabale hanitch hazten den kartieletan nahi dutie saldu ahal bezain handiko irabaziarekin. Hortarik nour berak eskolatu behar du eta gogouan ountsa hartu gaiza orotako badela doi den sari edo prezziobat, eta ahalaz eztela hartarik jalkhi behar. Erran daite eztela nazionebat aberats eta ountsa bere egitekoetan, egiteko hourak ezpadutu doi haren arao bardintzen, ezpadira merkhatietako prezioak edo kursak khanbio handirik gabe eta erosliak eta salzaliak ezpadie seguramena arrakhardergoak ezdutiala bere tratietan joko.

Jokulari eta arrakharderrak sarthu direnaz geroz ezinago barna goure merkhatu orotan, erran daite eztirela egitekoak doietik bardintzen ahal. Hortik jiten dira bat batetan eta zinez kourses khanbiatzia, hain menegarri direnak laborantcharentako.

Lehenago etzen holakorik ; haroa noulako zen eta prezioak bardintsu. Ogiak balio zian bethi libera bat edo biga uda hatsarrian, uztak hountu berri zirenian beno. Bekhan agitzen zen liferentzia handiagobat. Halaber beste bihi subertentako. Kabaliak bethi prezio bardintsieta saltzen ziren, eta ourthebatetik bestiala etzen khanbio handirik. Etzien laborarieki

beste erriskik, haro gaitzek edo uzurritek eraz ziro-kienbaizik.

Horik oro khanbiaturik ; ezta haboro segidarik egitekoetan, eta beharrunetan dena bortchatu datuke erdieran bere bihi edo kabalen saltzera prezio aphaletan, eta arrakharderek dutie prezioen goarentziak eta aphaltziak eraziko berentako irabazi handi batzien segurtatzeko. Ezta haboro aski bizitzia, aberastu behar da eta bertan. Halaz ikhousten dutugu hiri handietan eta berheziki Parisen judio hanitch eta hanitch Prusiatik jin zirenak philda tcharrian, zaragollak zilo, diala berrogeibat ourthe eta gutiago, hourak ikhousten tugu orai, karrochetan paseiun, gizenik, eta palazio ederrenetan.

Gaitza ezinago handi da ; goberniak ezaba eraz liro nahi balu, bena goure gobernazaliak judioen eskupian dira eta eztira phekhatuko haier jatzartzera. Areta badira legiak arrakhardergoaren kontre ! Aitzina eman balitze, bertan aiphatu judio hourak eta haien itzalian gordatzen diren khiristi arrakharderrak presountegietan lirate. Ezgira orano hortan.

Hori erran eta dugun ikhous noula erazirik izan diren ogi prezioetako azken khanbioak.

Aldebatik bada ogi eskaz handibat aorthenko uzte-tan ; bestaldetik eta gehienik arakhaderrek zerbaizt abantalla zien goorentze hortan. Hourak gabe araoz ogiaren prezioa gorentuko zen, bena emeki emeki eta ez hola batbatetan. Bethi danik ogi zaharrak hertzen ari zirenian eta ogi berriak saltzen etzireno, berheziki uztak aorthen bezala utchura tcharrekoak zirenian, prezioak goiti bazoatzan.

Azken ourthian, upta artekobat beno tchipiago izan behar zela uduri zialarik ogia saltzen zen Parisen, agorrila 19<sup>an</sup>, 18 libera 85, Anglaterran Californiako ogia 14 lib. 75 saltzen zelarik. Ountsala eta doanako dretchoa zazpi libera zelarik, saldu behar zukien ogia Parisen 25 libera 70 prezioan.

Aorthen agorrila 19<sup>an</sup> Parisen ogia heltzen zen 30 liberatara, Londresen balio zialarik 20 libera 50, erran nahi beita Frantziakopreazioachuchenizan baliz, etzela izanen 27 lib. 50 baizik. Aldi hountan Frantzian ogi sarerazliak irabazdiro 2 libera kintalekal.

Ogi berriak agorrilan eztiren orano net houn saltzeko : uztak urhentzen ari, joitiak zounbait lekhutan baizik ez hasirik, eta etziren eiheretako aski idor ; segur laborariek etzien orano hanitch saltzeko eta ukhen balie, eta Parisen saldu nahi ukhen balutie zutienak, errefusaturik izanen ziren, ez orano aski hounez.

Arrakhaderak ziren arren berak ari saltzen edo erosten, usian behin ere izan etzen oigitik. Bena noula orai berri « *acquits à caution* » direnen thermaña hullanturik edo llaburturik izan beita, prezioak gora erazi tie zinez eta batian esparantchareki hiri handietako langilek marraka ederrik eginen ziela jateko ogiaren khariotzian gañen, eta halaz goberniak, lotsaturik, idokiren ziala zazpi liberatako sar dretchoa. Ez-tira burutan joan, eta jadanik prezioak aphaltucherik dira.

Egia behar da erran ere Pariseko « *Bourse de Commerce* » denian eman prezioak, prezio izunak zirela. Ezi ogi hanitch egiten dien kartieletan ogia saltzen zen 26 libera kintalia eta nekez orano, Pariseko prezioak ber eguneko helzen zirenian 29 libera eterditara. Ezdutugia azken egun hoieta ikhousi, bihia khanbiatzan etzelarik, irinaren prezioak gorentzen 10 liberaz, eta bi egunen burian, 10 liberaz aphaltzen ?

Eta orai zouin da bihiaren prezio *doia* ? Hanitchogi egiten dien eretzetan langiliak Uskal Herrian beno kharioago dira eta legarrak ere araoka handichago. Bestalde 30 liberatako prezioa kintalekal, goratto baliin bada ezta gainti handitakoa. Prezio hori gaichki hartzen dienek ahazten die diala hogei ourthe arteko

prezio bat zela, Parisen ja, eta eskaz ourthetan 40 liberatara drano heltu dela.

Dugun urhentu gabe zerbait jateko ogiaren prezioaz. Orok dakiena da okhinek goratzen balinbadie ogiaren prezioa, bihia goiti badoenian, eztIELa araoka aphasen behera douenian.

Erra tugunetarik ageri da ogiaren oraiko prezioak etziala deusere gainti. Laor etan hogei ourthe hountan izan den preziorik gor ena da liberabat eta bost sos bikilo rentako. 1847<sup>a</sup> zer. Galtha Maoletar zaharrer zer arrabaska izan zen ourthe hartan Maole gañian hala unjurunetan. Geroko ourthetan erori zen hamalaor sos etara; 1865 eta 1869 artian heltu zen gorennetik librabatetara, prezioa aphasena hamalaor sos izan zelarik; 1871 eta 1882 en artian bethi hamazei hamazazpi sos khostatu dira bikiloak Oraiko prezioa holako uulta eskaz batetarik landan izan den merkena da. Ezta arren arrankura handirik ogiaren prezioangañen.

Eztut haregatik erranen ezlirokiela okhinek ogia sal merkechago, hiri handietan bederen, bena luzegi lizate horren cheheroki erakoustia.



## ERASI EDO ISTORIA

**B**EHIN, basabaster batetako herribatetara joanik zen Jaon aphezkupia konfirmankaren egiteko. Janartoraren etchen baziak behar beitzian, mera eta ajointa khumit ziren. Mera hori zen laborribat chapelduneki bere bizia higatu etziana; eta etzen batere trebe jaonen artian usatzen diren maneretan. Eztakit ere bazakianez othian sardachkaren erabilten.

Ajointa bestelako gizoun zen: hiri handietan mentez egonik ikhasi zian mundian bizitzen. Noula mera gai-zoak ezagutzen beitzian bere buria, ajointari erran

zeron : « To, agitzen bazait mahañian zerbait molde-gaizkeriaren egitia, zankhoaz ihourk ikhousi gabe emanen deitadak phousakobat geldi nadin. » Bazkai-teko tenoria jin, eta mahañian jarri ziren, mera aphezkupiaren aldeskunian, ajointa bestaldian. Zopa eta haragia jan ondoan, ekharri beitzien mahañaren erdiala salsabat chit urrin hounekoa, jaon merak, ogi bouzibat harturik, etchen eginen zian bezala, salsan sar, eta ousoukiz ari zaio Ahalketurik ajointak igorten derio zankhoaz ostikata uduri phousakobat. Bena oustez merari ari zen ostikataz, aphezkupiaren zankhoa jozian. Jaon aphezkupiak berhala asmatu zian zerentako zen ostikata hora, eta ajointati buruz utzulirik, erran zeron erritto batekin : « Bena jaon ajointa, segur eztudala holako lanik egiten ».

\* \* \*

Barberak oro eroan ondoan, aberats zikhoizbat hiltzena zoen, eta azkenian, ikhoustez etzela hoberik, aphezari hersatu zen. Kobesazaliak erraitzen dero behar dutiala gaichki bildu hountarzunak utzuli, bestela ezterola absolucionerik emaiten abal. Eriak, khountzentziaren phaosutan ezarteko, beitzutian bere diharu hanitcharen artian milabat lus behargabez bil-durik, deitzen du bereterra eta emaiten deitzo (zounbat nahi gogoz gainti), mila lusak, utzultzeko haietan zuzen ziener. Bereterra abiatudenetik berhala, eriak deitzen du gibel eta erraiten dero : « Bederen, ene adichkidia, eztitzatzula diharu horik eman ni osoki hilik ikhous artio ».

\* \* \*

Egun batez, laboraribat joan zen prozeskan aritzeko, bere abokatiari buruz, aholku galthoz. Zuzenak ountsa ikher, eta abokatiak derraio : « Zoure egitekoa houn duzu, segur, eta harez bermatzen nuzu ». Labo-

rariak kounsgulta phakatzen dero abokatiari, eta erraiten : « Jaona, orai phakaturik zirenaz geroz, erradazu egiazkiene aozikako (prozes) egiteko, orano ere hain houn edukitzeten duzunez. »

\* \* \*

Paobe khantuko bideberribatetan, neskatila gaztebat asto baten ondouan bazouen zalhe zalhia. Bidian paseiun ari zen jaon bati neskatila eijer uduriturik, galthatzen dero nounko den : « Ganeko nuzu, Jaona, » bestiak arrapostu. — « Bena ordian behar duzu ezagutzen duzun Nikolasen alhaba? Egin ezadazu plazera bi pot hoien hari eramaiteko. » Eta abiatzen zaio bi poten egitera. Neskatila buhurtzen, ihardesten drollerik : « Hainbeste lehia duzunaz gañian, egitzu bi potak ene astoari ; segur nuzu horrek eroanen deritzula nik beno bertanago, douen urhatsian. »

\* \* \*

Gizoun gaztebat ezkountzeko phuntian joaiten da erretoera gana kobesioneke paperaren galthoz. Erreto-rak entzun oundouan emaiten dero galthatu papera. Mouthikoak bazian duda gabe kobesionen gañen orano zerbaite arrankura ; ezi erraiten dero jaon erretoari : « Bena jaona, eztakit ountsa kobesatu othe nizanez : ezteitazu batere penitentziarik eman. » Erritto batekin ihardetsi erreto-rak : « Eta, adichkidia, ezteitadazia erran ezkontzekotan zirela ? »



MAIATZA edo EPHAILA  
Eg. luzatzen dira oren eta laordenez

- ② a. o. 6<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 43<sup>min</sup>  
 ④ a. l. 12<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 45<sup>min</sup>  
 ⑥ a. b. 20<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 8<sup>min</sup>  
 ⑧ l. l. 28<sup>n</sup>, arrasuniko 5<sup>or</sup> eta 28<sup>min</sup>

ARRAMAIATZA edo BAGILA  
Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.

- ② a. o. 4<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 21<sup>min</sup>  
 ④ a. l. 11<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 13<sup>min</sup>  
 ⑥ a. b. 19<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 29<sup>min</sup>  
 ⑧ l. l. 27<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 3<sup>min</sup>

1 <b>Igante.</b> 3.	J. Filipe et. Jak. Ap.
2 Astelehen.	s. Atanasi.
3 Astearte.	Da Khurutze.
4 Astizken.	s. Monika.
5 Ostegun.	s. Pio V.
6 Ostirale.	J. Johane, Eb. B. L.
7 Neskanegun.	s. Stanizlaz.
8 <b>Igante.</b> 4.	J. Migel. agert.
9 Astelehen.	s. Gregori, Na.
10 Astearte.	s. Antonein.
11 Astizken.	s. Oriens.
12 O tegun.	s. Nere eta Akil.
13 Ostirale.	s. Jenio.
14 N. kanegun.	Johane Salad.
15 <b>Igante.</b> 5.	s. Eutrope.
16 Astelehen.	Errogazioniaik
17 Astearte.	s. Paskal.
18 Astizken.	s. Venanzio.
19 Ostegun.	SALBATORE
20 Ostirale.	s. Bernardeñ.
21 Neskanegun.	s. Petiri Zel.
22 <b>Igante.</b>	s. Kiteria.
23 Astelehen.	s. Ubalde.
24 Astearte.	A. B. Lagunt.
25 Astizken.	s. Gregori VII.
26 Ostegun.	s. Filipe Neri.
27 Ostirale.	s. M. Mad. P.
28 Neskanegun.	s. Agosti.
29 <b>Igante.</b>	PENTEKOSTE.
30 Astelehen.	s. Felis.
31 Astearte.	s. Anjela.

1 Astiz. IVTh.B.	s. Kler.
2 Ostegun.	s. Potein.
3 Ostir. IVTh.B.	s. Klotilda.
4 Nesk. IVTh.B.	s. Frantzes K.
5 <b>Igante.</b> 1.	TRINITATE.
6 Astelehen.	s. Norbert.
7 Astearte.	s. Majan.
8 Astizken.	s. Medart.
9 Ostegun.	BESTABERRI.
10 Ostirale.	s. Margarita.
11 Neskanegun.	J. BARNABE, ap.
12 <b>Igante.</b> 2.	s. Johane F.
13 Astelehen.	s. Antoni, Pad.
14 Astearte.	s. Basila.
15 Astizken.	s. Jermena.
16 Ostegun.	s. Franzes R.
17 Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
18 Neskanegun.	s. Marina.
19 <b>Igante.</b> 3.	s. Jervasi eta Prot.
20 Astelehen.	s. Juliana Falk.
21 Astearte.	s. Louis Gonz.
22 Astizken.	s. Paoleñ.
23 Ostegun.	s. Eusebio.
24 Ostirale.	J. JOHANE BA.
25 Neskanegun.	s. Eurosia.
26 <b>Igante.</b> 4.	s. Johane eta Paule.
27 Astelehen.	s. Prosper.
28 Astearte.	s. Irene.
29 Astizken.	J. Petir. eta P.
30 Ostegun.	J. Phaoleren orh.

UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.

- ⌚ a. o. 3<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- ⌚ a. l. 10<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.
- ⌚ a. b. 18<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.
- ⌚ l.l. 26<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 49<sup>m</sup>.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2

- ⌚ a. o 2<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ⌚ a. l. 19<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.
- ⌚ a. b. 17<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- ⌚ l.l. 24<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- ⌚ a.o. 31<sup>n</sup>, arrastiriko or bakhoitzian.

- |                |                             |
|----------------|-----------------------------|
| 1 Ostrale.     | s. Tierri.                  |
| 2 Neskanegun.  | A. B. BIZITAZ.              |
| 3 Igante. 5.   | J.K. Odol Prez.             |
| 4 Astelehen.   | s. Léon II.                 |
| 5 Asteharte.   | s. Zirile eta Met.          |
| 6 Astizken.    | s. Trankile.                |
| 7 Ostegun.     | s. Marzial.                 |
| 8 Ostrale.     | s <sup>a</sup> Beronika     |
| 9 Neskanegun.  | s <sup>a</sup> Elisabet, P. |
| 10 Igante. 6.  | Zazpi anaie m.              |
| 11 Astelehen.  | s. Pio.                     |
| 12 Asteharte.  | s. Johane G.                |
| 13 Astizken.   | s. Anaklet.                 |
| 14 Ostegun.    | s. Bonaventura.             |
| 15 Ostrale.    | s. Johane Maj.              |
| 16 Neskanegun. | A.D.M.KARM.                 |
| 17 Igante. 7.  | s. Aletsis.                 |
| 18 Astelehen   | s. Kamille.                 |
| 19 Asteharte.  | s. Bizente Paolo.           |
| 20 Astizken.   | s. Filibert.                |
| 21 Ostegun.    | s <sup>a</sup> Pratseda.    |
| 22 Ostrale.    | s <sup>a</sup> M. Madalena  |
| 23 Neskanegun. | s. Apolinari.               |
| 24 Igante. 8.  | s. Henrik.                  |
| 25 Astelehen.  | J. JAKOBE, ap.              |
| 26 Asteharte.  | s <sup>a</sup> Aña.         |
| 27 Astizken.   | s. Galatori.                |
| 28 Ostegun.    | s. Nazari eta Zelze.        |
| 29 Ostrale.    | s <sup>a</sup> Marta.       |
| 30 Neskanegun. | s. Abdon.                   |
| 31 Igante. 9.  | S. Iñazio Loiola            |

- |                |                            |
|----------------|----------------------------|
| 1 Astelehen.   | J. Petiri katiet.          |
| 2 Asteharte.   | s. Alfonzo, Lig.           |
| 3 Astizken.    | J. Ezteber. edir.          |
| 4 Ostegun.     | s. Dominiche.              |
| 5 Ostrale.     | A. B. Elhur.               |
| 6 Neskanegun.  | J. K. Transfig.            |
| 7 Igante. 10.  | s. Kajetan.                |
| 8 Astelehen.   | s. Ziriako.                |
| 9 Asteharte.   | s. Jermeñ.                 |
| 10 Astizken.   | s. Laorentz,m.             |
| 11 Ostegun.    | s. Tiburze.                |
| 12 Ostrale.    | s <sup>a</sup> Klara.      |
| 13 Neskanegun. | s <sup>a</sup> Radegonda.  |
| 14 Igante. 11. | s. Eusebi.                 |
| 15 Astelehen.  | A.D.M.ZELIALAT.            |
| 16 Asteharte.  | s. Rok.                    |
| 17 Astizken.   | s <sup>a</sup> Emilia.     |
| 18 Ostegun.    | s <sup>a</sup> El-na.      |
| 19 Ostrale.    | s <sup>a</sup> Filomena.   |
| 20 Neskanegun. | s. Bernat.                 |
| 21 Igante. 12. | s. Julien Lesk.            |
| 22 Astelehen.  | s. Ipolita.                |
| 23 Asteharte.  | s. Filipe Ben.             |
| 24 Astizken.   | J.BARTOL., ap.             |
| 25 Ostegun.    | s. Louis, erreg.           |
| 26 Ostrale     | s. Filibert.               |
| 27 Neskanegun. | s. Jusef, Kal.             |
| 28 Igante. 13. | A. B. Bihotz.              |
| 29 Astelehen.  | J. Joh. Lephom.            |
| 30 Asteharte.  | s <sup>a</sup> Rosa, Lima. |
| 31 Astizken.   | s. Remoun N.               |



## BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.



- (Q) a. l. 7<sup>n</sup>, arratseko 11 oran.
- (Q) a. b. 16<sup>n</sup>, gaiherdi eta 19<sup>min</sup>.
- (D) l.l. 23<sup>n</sup>, goizanko 2<sup>or</sup> eta 49<sup>min</sup>.
- (E) a.o. 29<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 20<sup>min</sup>.

## URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren eta erdiz.



- (Q) a. l. 7<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 14<sup>min</sup>.
- (Q) a. b. 15<sup>n</sup>, eguerdieta 47<sup>min</sup>.
- (D) l.l. 22<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 18<sup>min</sup>.
- (E) a.o. 29<sup>n</sup>, eguerdi eta 27<sup>min</sup>.



1 Ostegun.	s. Bizente, ap.m.	1 Neskanegun.	s. Remi.
2 Ostirale.	s. Eztebe, erreg	2 <b>Igante.</b> 18.	ARRUSARIOA
3 Neskanegun.	s. Lizier.	3 Astelehen.	Ainguru beg.
4 <b>Igante.</b> 14.	s <sup>a</sup> Franzesa Ch.	4 Asteharte.	s Frantzes, As.
5 Astelehen.	s. Laorenz J.	5 Astizken.	s. Venzeslaz.
6 Asteharte.	s. Onesiforo.	6 Ostegun.	s. Bruno.
7 Astizken.	s. Zebero.	7 Ostirale.	s. Fide.
8 Ostegun.	A.B. SORTZIA.	8 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Birjita.
9 Ostirale.	s. Omer.	9 <b>Igante.</b> 19	A.B. Amatarz.
10 Neskanegun.	s. Nikolas.	10 Astelehen.	s. Frantzes B.
11 <b>Igante.</b> 15.	A. B. Izen Saint.	11 Asteharte.	s <sup>a</sup> Sabina.
12 Astelehen.	s. Gi.	12 Astizken.	s <sup>a</sup> Daonina.
13 Asteharte.	s <sup>a</sup> Ujenia.	13 Ostegun.	s. Edoart.
14 Astizken.	Dña Khurutze.	14 Ostirale.	s. Kalista.
15 Ostegun.	s. Nikomede.	15 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Teresa.
16 Ostirale.	s. Ziprien.	16 <b>Igante.</b> 20	A.B. Garbitarz
17 Neskanegun.	s. Franz. Zaor.	17 Astelehen.	s <sup>a</sup> Edvije.
18 <b>Igante.</b> 16.	A. B. Dolor.	18 Asteharte.	J. Luk, Eb.
19 Astelehen.	s. Janvier.	19 Astizken.	s. Grat. Olor.
20 Asteharte.	s. Estache.	20 Ostegun.	s. Johane K.
21 Astizk. IV Th. B	J. MATHIU, Eb.	21 Ostirale.	s <sup>a</sup> Ursula
22 Ostegun.	s. Maor.	22 Neskanegun	s. Petiri, Ark.
23 Ostir. IV Th. B.	s <sup>a</sup> Tekla.	23 <b>Igante.</b> 21.	A. B. Patron.
24 Nesk. IV Th. B.	A. B. Librazalia	24 Astelehen.	s. Rafael, alkz
25 <b>Igante.</b> 17.	s. Aostinde.	25 Asteharte.	s. Krespi.
26 Astelehen.	s. Tomas Vil.	26 Astizken.	s. Evarista.
27 Asteharte.	s. Kosme eta Dam.	27 Ostegun.	s. Fronton.
28 Astizken.	s. Faoste.	28 Ostirale.	J. SIMOUN, ap.
29 Ostegun.	J. MIGEL, ark.	29 Neskanegun.	s. Usebia.
30 Ostirale.	s. Jeronimo.	30 <b>Igante.</b> 22.	s. Kazien.
		31 Astelehen.	s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak llaburtzen dira orenez.

- Ⓐ a. l. 6<sup>n</sup>, arra tiriko 2<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.  
Ⓑ a. b. 14<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 30<sup>m</sup>.  
Ⓓ l. l. 20<sup>n</sup>, arra tiriko 5<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.  
Ⓣ a. o. 28<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>.


- Ⓐ a. l. 6<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.  
Ⓑ a. b. 13<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.  
Ⓓ l. l. 20<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 31<sup>m</sup>.  
Ⓣ a. o. 27<sup>n</sup>, arratsekoi 11<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.

1 Asteharte.	DONISANTORE.	1 Ostegun.	s. Eloi.
2 Astizken.	Purg. Arimak.	2 Ostirale.	s. Bibiana.
3 Ostegun.	s. Zebero.	3 Neskanegun.	s. Frantzes Za.
4 Ostirale.	s. Charles Bor.	4 Igante.	Abentuko 2 <sup>a</sup> .
5 Neskanegun.	s. Zakaria.	5 Astelehen.	s. Sabas.
6 Igante. 23	Eirrelkia sk.	6 Asteharte.	s. Nikolas.
7 Astelehen.	s. Florent.	7 Astizken.	s. Anbrosi.
8 Asteharte.	Lao Martirak.	8 Ostegun.	A B. KONTZEP.
9 Astizken.	s. Teodoro.	9 Ostirale.	s. Jeronze.
10 Ostegun.	s. Andreu Av.	10 Neskanegun.	s. Ulalia.
11 Ostirale.	J. MARTINE.	11 Igante.	Abentuko 3 <sup>a</sup> .
12 Neskanegun.	s. Marti.	12 Astelehen.	s. Melkiade
13 Igante. 24	ELIZEN SAKR.	13 Asteharte.	e. Valeri.
14 Astelehen.	s. Josafat.	14 Astiz. IVTh.B.	s. Arzene.
15 Asteharte.	s. Jertruda.	15 Ostegun.	s. Mismeñ.
16 Astizken.	s. Edmon.	16 Ostir. IVTh.B.	s. Euzebio.
17 Ostegun.	s. Gregori T.	17 Nesk. IVTh.B.	s. Lazaro.
18 Ostirale.	s. Odon.	18 Igante.	Abentuko 4 <sup>a</sup> .
19 Neskanegun.	s. Elisabet Ong	19 Astelehen.	s. Urbeñ.
20 Igante. 25	s. Felis, Valesi.	20 Asteharte.	s. I liberat.
21 Astelehen.	A. B. Eskentzia	21 Astizken.	J. TOMAS, Ap.
22 Asteharte.	s. Zezila.	22 Ostegun.	s. Flavieñ.
23 Astizken.	s. Klement.	23 Ostirale.	s. Onorat.
24 Ostegun.	s. Johane Kh.	24 Neskanegun.	s. Delfina.
25 Ostirale.	s. Katalina.	25 Igante.	EGUBERRI.
26 Neskanegun.	s. Petiri, Alk.	26 Astelehen.	J. EZTEBE, m.
27 Igante.	ABENTUKO 1 <sup>a</sup> .	27 Asteharte.	J. JOHANE, Eb.
28 Astelehen.	s. Maorino.	28 Astizken.	Haor Inozent.
29 Asteharte.	s. Saturni.	29 Ostegun.	s. TomasKant.
30 Astizken.	J. ANDREU, Ap.	30 Ostirale.	s. Manzuet.
		31 Neskanegun.	s. Silbestre.



## OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an.</sup>
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an.</sup>
LARRAZKENA hasten da buruila lako	23 <sup>an.</sup>
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an.</sup>



## MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruila 6<sup>n.</sup> — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihamenian eta Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko eta Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, eta abentuko 26<sup>n.</sup>. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n</sup> eta azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>n</sup> eta aphiril. 15<sup>n.</sup> — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkn, eta abentu 8<sup>n.</sup> — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko eta urrietako lehen astehn. — OLOROUN : **m.**, ostir. eta asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n</sup>; eta buruila 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. eta osteg., **f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, eta Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkn eta urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.



## HANITCH KHASU HOUNI

**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Hirourgerren arraldia, aorthen hasten da.

### Edirengia

Renaud d'Elissagaray. .... I

I. Uskal-Herriko laborarier .....	I
II. Daigun Bozka. — M. Barthou Maolen .....	4
III. Kargulantak zer khosta diren .....	9
IV. Daigun jesaitia.....	14
→ V. Orriaga : Arrolanen hiltzia .....	18
VI. Laborantchaz :	
1º Uztak 1897 <sup>an</sup> .....	19
2º Ameriketako kabaliak Frantzian.....	22
3º Ogiaren prezioaz.....	27
VII. Erasi edo Istoria. ....	30